

ERASOEN ONDORIO EKONOMIKOAK. Nazioartean bezala, EAEn ere jarduera ekonomikoa moteltzen ari da, Eusko Ganberak aitortu dutenez, eta irailaren 11 ondorengo gertaerek, gainera, ez dirudite egoera hobetuko dutenik.

Eusko Ganberen arabera, moteltzearen ondorioak igarri ditu ekonomiak EAEn

Sektore ekonomiko guztietan nabaritu da jardueraren geldotzea, bereziki industrian eta zerbitzuetan

Erredakzioa | DONOSTIA

Nazioarteko egoera ekonomikoa moteltzen ari den honetan, «euskal ekonomia ez dago bilakaera horretatik kanpo eta bertan ere hazkundearen erritmoa jaitsiz joan dela agerian jarri da». Hala adierazi zuen Eusko Ganberak plazaratutako prentsa ohar batek, EAeko egoera eta estatistikari buruzko buletina laburbilduz.

Ganberak azaldu zuten, moteltzearen lehen azarnak ia zuzenaz azaldu ziren, eta geroztik areagotu egin da. Nazioarteko erakundeek egin duten bezala, aurten zein hurrengo urterako aurreikuspenak jaitsi behar izan dira,

Azken hilabeteko ezberdintasunak, gainera, ez diote onik egin egoerari eta eragin nabaritu direla aurreikusten dute Ganberak: «Joera hori larriagotu egingo dute EEBBtako eta Afganistango gertaerek, zalan-zalak handitu egin baitira».

Ganberak: «Apaltzea sektore ekonomiko guztietan ageri da»

Balazta jarria du ekonomiak, beraz, eta «apaltzea sektore ekonomiko guztietan ageri da». Era berean, ekonomiaren ahalaldia horrek bere isla izan du barne merkaturan eta esportazioetan. «Paraleloki, kontsumo eta inbertsioetan bultzada txikiagoa nabari da», gaineratu zuten Ganberak.

Sektoreei dagokienez, dena den, bai industri bai zerbitzuetan are ageriagoa da jardueraren geldotzea; eraikitza, berriz, dinamismo handiagoa agertu du.

Industri alorrean, konfiantza adierazleak egonkor jarraitzen badu ere, beheranzko joera apala dauka, Ganberak aitortzen dutenez, eta iragan urtekoaren azpitik jarraitzen du. Oharrean zehazten denez, eskari zorroak egin du bereziki beherakada, «barne eta kanpo merkaturak eraginda», eta, pixkanaka, ekoizpenaren aurreikuspenak mozten segitzen dute. Hala, industri produkzioaren indizea

SEKTOREAK

Bai zerbitzu bai industrian are ageriago da geldotzea; dinamismo gehiago du eraikitza

ENPLEGUA

Sektoreetako bilakaeraren ondorioz, enpleguaren sorkuntza ez dela hobetu esan dute Eusko Ganberak

tasa negatiboetan dago (-%1,1).

Zerbitzuetako atal guztietan ere joera bera dago: txikiak merkataritzaren bultzada jaitsi egin da, aisia eta turismoan ere jarduera murriztu egin da «bidaiari kopuruan islatzen denez», eta, azkenik, industria eta turismoaren beherakadak ondorioa izan du garraio arloan.

Eraikitza da, bestalde, sektorerik sendoena, Ganberen azterketak jasotzen duenez. Bere adierazleek «hazkunde garrantzitsua agertzen dute, baina orain urtebetekoarekin alderatuz apalki beherantz». Sektoretako bilakaera horren ispilu, «enpleguaren sorkuntza apenas hobetu den», adierazi zuten Ganberak oharrean.

Kontsumo pribatuari ere eragin dio hazkundearen moteltzeak. Ganberen aburuz, kontsumorako ondasunen ekoizpen eta inportazioen murrizketek eta enpleguaren sorkuntza urriagoak ondorio txarra du kontsumoan. «Kontsumitzaileen konfiantza ere hausten ari da», esan zuten Ganberak.

Inbertsioetan ere hazkunde aurreikuspenak moztu egin dira, «bereziki, ondasun ekipoen beherakadarengatik». Kanpo merkataritzan ere jarduera ahuldu egin da eta %2,3 igo da 2001 urte erdian.



GERARD CERLES / EPA

D. Reynders Ekofineko presidentea, P. Solbes komisarioa eta L. Fabius finantza ministro frantziarra.

Irailaren 11 osteko lau egunetara mugatu ditu Europak airelineentzako laguntzak

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batasunak lau egunetara mugatu du hegazkin konpainiei eman beharreko diru laguntza zuzenak eta ondorioz, erasoen ondorengo lau egunetarako soilik jasoko dituzte laguntzak konpainiak. Hala ere, beste hilabeteko baimena eman die Europako Batasunak aire konpainiei aseguruak garestitutako pizgarriak egoki ditzaten eta epe hori amaituta, berriro akordioa berritzeko aukera irekita utzi du.

Hala erabaki zuten atzo EBko finantza (Ekofin) eta garraio ministroek Luxenburgon izandako bileran. Orain arte, Europako Batasunak sektorean diru laguntzak debekatu ditu lehia bermatu asmoz eta egoera berriaren au-

rean zein pauso hartu behar diren ondo zaindu nahi du.

Estatu Batuetako Gobernuak, kasu, 15.000 dolarreko plana onartu du eta EBk datozen asteetan harremanetan jarriko da George Bushen administrazioarekin laguntzok Atlantiko gaineko bidaietan ez ezarri eta konpainia europarren lehiakortasunari ez eragiteko.

Bestalde, Europako Batzordeak eta zenbait herrialdek uste dute aukeraz baliatu nahi dutela zenbait gobernu erasoak aitzakiatzat hartu eta lehendik ere une zailak igarotzen ari ziren konpainien egoera konpontzeko.

EBZri mezua

Ekofinen bileran, bestalde, ekonomiaren moteltzearen aurrean, beren erantzukizuna

eskatu diete finantza ministroek Europako Banku Zentralari eta defizitean diren herrialdeei, Alemaniari eta Frantziari, esaterako.

Beti ere hitzak ondo zainduz eta banku zentralaren burujabetza errespetatuz, euroaren eremuan diru politikak esku hartzeko «marjin handiagoa» duela esan zuen Didier Reynders Ekofineko presidentea. Karl-Heinz Grasser finantza ministro austriarrak ere keinu bat egiteko eskatu zion EBZri: «Bere helburu nagusia prezioen egonkortasuna da eta orain prezioak egonkor daude».

Azkenik, talde armatuen finantza iturrien aurka EBk duen legedi zabalari, dirua zuritzearen aurkako arau berria erantsi zioten finantza ministroek atzoko bileran.